


Amamaren grafitiak

Toti Martínez de Lezea



n a r r a t i b a

errein

AMAMAREN GRAFITIAK

60 urte eta gehiagoko
etxeoandre baten bakarrizketa

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko maiatzean

Jatorrizko izenburua:

Los graffitis de mamá, ahora abuela

Irudiak eta azalaren diseinua:

Estibalitz Jalón

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-227-8

L. G.: SS-564/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzaillea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

Toti Martínez de Lezea

AMAMAREN GRAFITIAK

60 urte eta gehiagoko
etxekoandre baten bakarrizketa

Itzulpena:
Miren Arratibel



erein

*Etxekoandreei,
amamei,
amei,
alabei,
kideei*

Hamar urte baino gehiago dira *Los grafitis de mamá* idatzi nuela (bizkor doa denbora, gero!), eta, esan didatenez, gustura irakurri zuten hainbat emakumek, eta, emakumeek ez ezik, gizonek ere bai. Azkenaldian, behin baino gehiagotan galdetu didate emakume “arrunt” baten, etxetik kanpo lanik egiten ez duen etxeakoandre baten komeriei buruzko testu horri buruz, eta kexu ziren horietako batzuk, testua aurkitzeko zailtasunak dituztelako; izan ere, gauza jakina denez, liburu-dendek gero eta funts txikiagoak dituzte, tokirik eza dela-eta, edo, agian, obra argitaratu berriak direlako gehien saltzen direnak, batez ere, argitaletxe handi baten babesari badute, *glamour* handiko sariren bat irabazi badute, edo politikari, futbolari, telebistako tertuliano edo artista batek idatzi badu, eta halaxe izaten da gehienetan. Horrelaxe bururatu zitzaidan idatzi “zaharrari” gainbegiratutxo bat egitea, eguneratzea, eta horrela sortu da argitalpen zuzendu eta osatu bat, gaztelaniaz *Los grafitis de mamá, ahora abuela* izenburua duena, eta euskaraz *Ammaren grafitiak* besterik gabe, orain eta hemen ikusten baitu argia aurreneko aldiz.

Behingoz, bakarrik! Banuen lasai dutxatzeko garaia, inork ezustekoan etxeko beste iturri bat ireki eta uraren tenperatura bat-batean hozteko arriskurik gabe; gainera, depilatzeko aukera ere izango dut, norbaitek hortzak garbitu behar dituelako erdi depilatuta korrika eta presaka atera behar izan gabe. Dena dela, beti gerta liteke norbaitek txirrina jotzea –ez da lehen aldia izango– eta atea zabaltzera joan behar izatea, auskalo noizko albornoz ziztrin hori jantzita, dagoeneko zeharo piltzartua, hari guztiak zintzilik ditudala. Erosi beharko dut albornoz berri bat ere noizbait; ikusiko dugu, halere, ez dut asko-asko ere erabiltzen-eta. Azkena erosi nuela pare bat urte izango dira, eta estreinatu ere egin gabe Mirariri operitu nion, berak ez zeukalako. Bide batez, jertse marradun bat ere operitu nion, zabalatarako marrekikoa: primeran dauka berak, eta nik, berriez, biribil-biribila ematen nuen hura jantzita.

Ba, begira, ongi pentsatuta, dutxaren ordeez, bainua hartuko dut. Duela auskalo zenbat Gabon nire koinata Luziak operitutako ontzi hura hustuko dut; komuneko armairuko txokorik ezkutuenean gorde nuen, traba besterik

egiten ez zuelako. Baditut gehiago ere. Ea ba... non dagoen... Batzuetan, irudipena dut berari oparitzen dizkio-tela eta haiekin zer egin ez dakielako ematen dizkidala gero niri. Ekuazio berarekin tematuta jarraitzen du gainera: Gabonak dira, beraz bainuko gel ontzi bat koinatarentzat. Dena dela, neuk ere gauza bera oparitzen diot berari beti: Poinsettia bat, txikietakoa.

Oraintxe nago zalantzan, zer egin ez dakidala: dutxa ala bainua? Bainua. Ongi merezia dut; merezi dut filmetan agertzen direnen moduko bainu apartsu bat; baina ez dut kandelarik piztuko, egun argiz delako, eta ez dudalako ez kandelarik ezta kandelak jartzeko tokirik ere. Zoragarri gelditzen dira pelikuletan, baina gero baldosetan itsatsita gelditutako argizaria garbitu beharko nuke... Musika jarri, eta begiak itxiko ditut. Non arraio ote da hain gustukoa nuen Joan Baezen kasete hura? Berdin dio: Bob Dylanekin moldatuko naiz. Tira ba, barrura.

Ene! Hau da plazera, eta denbora alferrik galtzea... eta ura! Aizu, behingoagatik ez da ezer gertatzen, eta nire urtebetetzea da gaur. Ea bizkarreko min hau pasatzen zaidan. Handia da, gero, ohetik bizkarreko minez jaikitzea; arrosa bezain fresko egon beharko nuke goizetan. Koltxoia izango da, agian; edo, hobeto esanda, koltxoiak, bi ditugu-eta: gure ohekoa, jatorrizkoa, gehi haren gainean jarri genuena Jonen ohea kendu genuenean, ez genekielako zer egin harekin. Manuk dena gordetzen du, den-dena, noizbait erabilgarria izango delakoan! Egun batean, harrika botako dizkiot paperez gainezka dituen kutxa madarikatu horiek guztiak.

Zertarako arraio gorde orain dela berrogei urtetik gorako argindarraren ordainagiriak, eta eduki genuen lehen etxeko errentarenak, eta txikitan egin zizkioten erradiografiak... Eta zer esanik ez egunkari, aldizkari, liburuxka eta enparauak! Bizi den artean egoerak okerrera ez egitea espero dut, baina bizi luzea izango duelakoan nago, halaxe izan baitzuten nire aitaginarreba-amaginarrebek, eta beldur naiz prentsan agertu ohi den hori gertatuko ez ote zaion: “Diogenesen sindromeak jotako agure bat hilik agertu da bere etxean, zaborrez inguratuta”. Horixe gertatzeko arriskua du han eta hemen paperak barra-barra biltzen jarraituz gero. Alferrik, gainera: hemen utzi beharko ditu beste mundura joatean!

Agian ipuineko printzesarena gertatuko zait niri ere: erreginak hamabi koltxoiren gainean lo eginarazi zion, azpian ilar ale bat jarrita, egiaztatzeko ea erregezkoen odola zuen, eta ubelduraz josita altxatu zen biharamunean. “Errege eta erregezkoen odolaren” kontuak. Egia ote da urdina dela? Hori higuina! Ez nadin kezkatu: seguru asko, hainbeste urtez erosketetako poltsa, butano botila eta eguna joan eguna etorri mila zama batetik bestera mugitu behar izatearen ondorioa izango da nire minarena. Orain, gainera, bizkarreko mina ez ezik, lumbagoa ere badut. Gorriak ikusi nituen atzo sukaldeko trapua lurrera erori zitzaidan hura jasotzera makurtzeko! Eskerrak pixka batean eseriz gero arintzen zaidan. Gainerakoan, denetik probatu dut, ez pentsa: kremak, kuxin beroak, gimnasia pixka bat... eta alfer-alferrik. Mina itzuli egiten zait tribua etxera bazkal-tzera etortzen denean, babarrunez betetako eltzeari heldu

eta mahaira daramadanean edo ordubetez harraskan plater garbitzen pasatu orduko.

Zenbat urte ote ditu Bob Dylanek? Mordoxka bat, honezkerok, zaharra baitzen hirurogeiko hamarraldian haren protesta kantuekin hunkitzen nintzenerako. Buruz nekizkien haren kanta guztiak. Ene, non ote dabil arraspatzen doi-doi ikasi nuen gitarra hura? Trin, trin, trin... *Blowin' in the wiiiiind!* Alajaina! Haiek bai urteak! Nola ez ziren ba garai onak izango, hamasei edo hamazazpi urte izanik? Eta a zer janzkera... orkatiletarainoko soinekoak, blusa indiarrrak, tuniak eta elefante zangoko galtzak, orain berriro modan jarri diren horietakoak. Pena da garai batean erabilitakoak bota izana... baina zer ari naiz? Orain, ezingo nituzke belaunetatik gora ere sartu. Gainera, ez naiz Felimari bezalakoa, nahiago nukeen arren! Kolore biziz tindatuta eramaten du ilea, eta gona luzea eta txaleko lisdunak erabiltzen ditu; eta, behin topo egin genuenean, koloretako galtzerdi marradunak zeramatzan. Ikaragarritzko inbidia diot... bere buruarekin gustura dagoelako; ez dirudi aldatzeko tankera handirik duenik, eta bost axola zaio jendeak zer dioen.

Blowin' in the wiiiiind! Egin maitasuna, eta ez gerra... Maitasuna, makinatxo bat eragozpenekin, ordea; ezpainetan musua, eta zirritxoren bat, atariko ilunpetan, hori zen urruneneko muga, gaueko hamarretarako etxean egon behar izaten genuen garai hartan. Txundituta utzi nituen gazteak lehengoan, esan nienean gaztetan porrotxoren bat errea nintzela. Estralurtarra banintz bezala gelditu zitzaizkidan begira. Eta barrez lehertzen kontatu nien ni ere manifestara

joaten nintzela eta “grisen” aurrean korrika ibiltzen nintzela. Atzo goizeko kontuak! Mundua beraiekin hasi zela uste dute-eta! Ez dira gai beren ama gazterik imajinatzeko, baina izan nintzen gaztea noizbait, bai, eta halaxe jarraitzen dut. Ez da zahartzen gorputza, espiritua baizik; eta sasoi betean dago nirea. Tira, ez dut uste gai direnik beren gurasoak amodioa egiten imajinatzeko ere, eta, egia esateko, neuk ere nekez imajina ditzaket nireak; baina, zer demontre, nonbaitetik atera nintzen ni, eta nonbaitetik aterako ziren beraiek ere, ezta? Hara, urteen poderioz sendatzen den gaitz bat da gaztetasuna; granoak desagertu arte itxarotea da gakoa.

Pozten naiz Bob Dylani Literaturako Nobel Saria eman diotelako, horretaz direnak eta ez direnak esan dituzten arren literaturako *aditu* askok, baita orain artean merezimendu askorik erakutsi ez baina merezimendu gehiagoren jabe direla uste duten idazle batzuek ere. Ez dut nik nire burua ezertan aditutzat hartzen, ez bada etxeko kontuetan, baina, egia esan, poeta bikaina da gizona, eta haren abestien hitzek arrasto sakona utzi dute belaunaldi oso batean: nirean, hain zuzen. Leonard Coheni ere emango nion nik; izugarri gustukoa dut!

Ea ba, hankak depilatzera noa, ura hoztu baino lehen. Beti izan dut telebistako iragarkietan ikusten den bezala depilatzeko gogoa. Hartu aitzurra, altxa gora hanka aparartetik... eta kaka! Hau da kolpea! Jakina, ez dut ongi egin-eta. Agian... oina bainuontzi ertzean jarrita... Kaka zaharra! Orain bai emango dudala ilar baten gainean lo egin duen printzesa bat, baina kolpeengatik! Bistan da ez

naizela publizitateko modeloa izateko jaioa. Manu behin-
goz animatzen bada, dutxa jarri beharko dugu laster; adin
honetara iritsita, ez gaude oreka-ariketak egiteko, eta susto
ederra hartuko dugu egunen batean, argi ibiltzen ez bagara.

Burua garbituko dut “basalarrosen” xanpuarekin; disti-
ratsu uzten omen du ilea, eta harro. Ez dut fede handirik,
baina ikus dezagun egia den. Iragartzen duten guztia egia ba-
litz, nire adineko emakumez gainezka egongo litzateke ka-
lea, denak lirainak, argalak, gerrirainoko adats luzearekin eta
zimurrik batere gabeak. “Erabili krema hau, eta gaztetan be-
zain leun izango duzu azala...”. Eta halako batean agertzen
da gaztetxo bat, ez ur ez ardo, delako krema hori zein era-
ginkorra den erakutsiz, emakume helduak ergelak bagina be-
zala! Telebistako film horietan bezala: emakume ingeniariak,
medikuak edo abokatuak agertzen dira beti, biziki argiak eta
ederrak; eta gizonak, berriz, zaharrak eta lodikoteak izaten
dira, protagonista izan ezik, jakina, hori beti izaten baita se-
kulako gizon puska. Eta zer esanik ez emakumezko polizia
horiek, jendea sailean akabatzen duten hiltzaileak harra-
patu eta atxilotzen dituzten horiek, “genero beltzeko” deri-
tzen eleberri eta telesailetan agertzen direnak. Guztiak gazte,
guztiak eder. Eta zein ongi moldatzen diren, aizu, hiltzaile-
aren atzetik korrika, harri tartean eta zapata takoidunekin las-
terka! Halako eleberri bat idazteko gaitasunik banu, kale kan-
toiko ogi saltzailea aukeratuko nuke protagonista izateko;
emakume arrunta, 50 neurrikoa, eta ilea tindatu gabekoa.

Dena dela, gustura ikusiko nuke nik izeba Elisa mira-
rizko krema edergarri horien “aurretik” eta “ondoren”.

Emakume ederra zen... Ederra, benetan! Beti dotore jantzita eta ongi orraztuta ibiltzen zen; eta azal leuna zuen, geishen tankerakoa, perfektua. Ez zuen inoiz barre egiten, ordea: irribarretxoa, gehienez ere, noizean behin. Amak zioenez, azala ez zimurtzeko. Eta zertarako? Azkenekoz ikusi nuenean, aspaldi jada, laurogei urte beteta ordurako, Tutankamonen momia zirudien gajoak, eta zimur-zimur eginda zuen aurpegia: zimurrak zituen kopetan, masailetan, kokotsean, baita sudurrean ere. Sekula ez dut ikusi sudurrean ere zimurrak zituen beste inor, eta ez dago zimur horiek leunduko dituen ama semerik edo alabarik, ezta telebistan iragartzen dituzten krema superzoragarri, superbikain, supergaztetzaile horietako batez beteriko bainuontzi batean sartuta ere. Bizi osoa, estatua bat bezala, zertarako, eta horrela amaitzeko. Hainbeste une zoragarri eta barre algara alferrik galtzea ere!

Gure amamak xaboa, ura eta olioaren erabiltzen zituen gazte irauteko erremedio gisa, eta baita, nire ustez, optimismo pixka bat ere, barrea beti ezpainetan, irribarre zabal hura, melokotoi azal leuneko ipuinetako amamaren aurpegi hartan musu ematera bultzatzen zintuena. Gure ama bezalaxe: zoragarri dago ia ehun urte izan arren, eta beti esaten du bizi guztian saiatu izan dela jende bekaiztiarengandik urruntzen, sekula ez duela izan besteek zeuzkaten gauzekiko irrikarik eta ez dela kexatu falta zitzaionagatik. Horixe omen da erre-zeta magiko bakarra eder egoteko, kanpotik nahiz barnetik.

Bekaizkeria Egiptoko zortzigarren izurriarena bezalakoa da. Gaztetan, ez nintzen ohartzen, nahiz eta amak behin eta

berriro esaten zidan ez fidatzeko benetako lagunak zirela esan baina gutxien espero zenuenean senargaia lapurtzeko gai ziren haiez. Inori ez nion aukerarik eman niri Manu lapurtzeko, ordea... Ongi gordeta izan nuen! Eta hortxe daukat, ezkondu ginenean bezain guapo, edo ia. Orain, dena den, sumatu egiten dut inbidia, ikusi egiten dut, eta gure amak bezalaxe egiten dut: asko eduki arren besteek duten horren irrikaz bizi direlarik inoiz zoriontsuak ez diren pertsonengandik ihes egiten dut. Begira, adibidez, beste andre hura –*andre*, zerbait esateagatik–: aurpegia berde-horixka jartzen zaio kalean topo egiten dugun aldi oro, nik inoiz ezer txarrik egin ez diodan arren. Garai batean, berriketan aritzen ginen, eta seme-alabak zer moduz zebiltzan galdetzen zidan, eta laurak ongi zeudela erantzuten nionean, zoriontsu bizi zirela esaten nionean, hauxe botatzen zidan: “Ikusi behar gero...”, kalteren bat gertatzea nahi balu bezala. Orain ez diogu elkarri hitzik egiten, behin oihu egin zidalako, berak niri, eta nik hari ere bai, ozenago. Oihu egiteak arrazoia ematen diotela uste dute, harik eta norbait topatzen duten arte beraiek baino ozenago hitz egiten duena: orduan, amore ematen dute. Negargarria...

Hara zer esaten duen gure amak: “Hogeita hamar urte bete arte, Jainkoak emandako aurpegia duzu; hirurogei bete arte, bizitzak emandakoa; eta hirurogeitik aurrera, zuk irabazitakoa”. Argi dago: atso horrek, beste hainbatek bezala, merezimendu osoz irabazia du bere ozpin aurpegi hori.

Ene, bekainetaraino nago aparrez beteta! Tapoia kenduko dut, eta ura hustu arte egongo naiz; bitartean,

